



Lezoko Unibertsitateko Udala

LEZ 2030

izan herrigile

LEZOKO PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA

2022eko irailak 22

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	3
2. LEZO 2030 PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA	3
2.1 Plana diseinatzeko prozesuaren helburuak eta baldintzak	3
2.2 Prozesuaren deskribapen orokorra	3
2.3 Plan Estrategiko jasangarria	4
– Lerro estrategikoak	4
– Lezo 2030 Plan estrategikoaren egitura	5
– Plan Estrategikoaren ekarpena GJHei	6
– Lerro Estrategikoak, Programak eta Ekintzak	7

1. TESTUINGURUA

Lezoko Udalak 2004an abiatu zuen, Oarsoaldeko Udaltalde 21 izeneko eskualde mailako ekimenaren baitan, Tokiko Agenda 21 osatzeko prozesua. “Udaltalde 21” lan-taldea Errearteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiko udalek, Oarsoaldea b.a garapenerako agentziarekin batera, osatu zuten 2004 urtean. Bere helburua garapen iraunkorraren alde lan egitea izan zen, udaletan Tokiko Agenda 21en prozesuaren lehen fasea aurrera eramanez, taldean lan egiteak dituen abantailak baliatuz.

Honela, 2006ko apirilean onartu zuen Lezoko Udalak herriko garapen iraunkorraren aldeko I. Ekintza-plana eta, orduz geroztik, ekintza ezberdinak eraman ditu aurrera arlo ezberdinetan (natura-ondarearen lehengoratzeta eta kontserbazioa, hondakinen gaikako bilketa, Eskolako Agenda 21 hezkuntza-programa herriko ikastetxeetan martxan jartzea, ...). 2006 urtean onartutako plangintza haren indarraldia agortuta, 2020 urtearen hasieran, Udalak **Lezo 2030 izan herrigile prozesua abiarazi zuen, 2030 urtera begirako Lezo 2030 Plan Estrategiko Jasangarria diseinatzeko asmoarekin.**

2. LEZOKO PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA

2.1. PLANA DISEINATZEKO PROZESUAREN HELBURUAK ETA BALDINTZAK

Helburu Orokorra: Lezoko plan berriarekin herri-identitatea indartu eta udalaren kudeaketa estrategikoak izango diren gaien inguruko hausnarketa eta eztabaida sortzea.

Era berean, prozesu honetan zehar, ondoren zehazten diren helburuei begirako lanketa ere egin da:

- ✓ Udal kudeaketa errazteko tresna garatzea, gobernantza eredu berri baterako urratsak emanez.
- ✓ Herriko eragileei parte-hartzeko aukera zabaltzea.
- ✓ Udalak egiten dituen lanen inguruko informazioa zabaltzea, gardentasuna bermatuz.

2.2. PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

2020 urte hasieran Lezoko Udalak “Lezo 2030 izan herrigile” plan estrategikoa diseinatzeko prozesua abiarazi zuen, 2030 urtera begirako herria irudikatu eta hartara iristeko ibilbide-orria definitzeko.

Horretarako, lehenik eta behin, Lezo tokiko garapen iraunkoraren ikuspuntutik zein egoeratan zegoen islatzen zuen diagnosia idatzi zen. Diagnostikoaren idazketa-fasea 2020-2021 urteen artean burutu zen. Horrekin batera, “Lezo 2030 izan herrigile” plan estrategikoa ezagutzera emateko komunikazio-ekintza ezberdinak antolatu zituen Udalak (web-gunean atal berezia sortzea, prozesuaren aurkezpena, herritarren eta eragileen ekarpenak jasotzeko agenda2030@lezo.eus eposta sortzea, etab.).

Diagnosia osatu eta plan estrategikorako oinarriak jaso asmoz, herriko eragileekin hainbat elkarrizketa saio antolatu ziren. Horretaz gain, udaleko zein eskualdeko teknikariekin ere kontrastatu zen diagnosia, bere ekarpenak barneratuz. Ekarpenak hauek ere 2021 amaiera eta 2022 hasierara artean idatzi den Plan Estrategikoaren baitan hartu dira.

2022ko 2. hiruhilekoan, udaleko teknikariekin plan estrategikoaren ekintzak ezaugarritu dira, datozen urteetan planaren jarraipenerako baliagarri izango den dokumentua osatuz.

Lezo 2030 Plan Estrategikoa 2015. urtean Nazio Batzuen Erakundeak onartutako Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatuta dago.

2.3. PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Aipatutakoa aintzat hartuz, ondorengo **5 Helburu Estrategiko** hauek zehaztu dira:

1. HE: HIRI-EREDU JASANGARRIA SORTZEA, HERRITARREN ONGIZATEARI BEGIRA, KLIMA-ALDAKETAREN AURREAN EGOKITZEN DENA.
2. HE: TRANTSIZIO SOZIOEKOLOGIKOAN OINARRITUTAKO GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATZEA, INKLUSIBOA, BERRITZAILEA ETA JASANGARRIA, ETA KALITATEZKO ENPLEGU OSOAREN ALDE EGITEA.
3. HE: HERRITAR GUZTIEN ONGIZATEA BERMATUKO DUEN GIZARTEA ERAIKITZEA.
4. HE: KULTURA-, KIROLA- ETA HEZKUNTZA- SORKUNTZA ZEIN ESKAINTZA ZABALA SUSTATZEA, ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANEAN OINARRITUZ.
5. HE: UDALAREN GOBERNANTZA BERRIAREN ETA EREDUGARRITASUNAREN BIDEZ, LEZO HERRI IRAUNKORRA BIHURTZEA.

LEZO 2030 PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURA

Plana lehen aipatutako Helburu Estrategikoetan antolatzen da. Era berean, Helburu Estrategiko hauetako bakoitza Jarduera-programetan banatzen da. Programak, helburu estrategikoak lortzen laguntzen duten helburu zehatzagoak dira. Azkenik, programak ekintzek osatzen dituzte:

HELBURU ESTRATEGIKOAK (*Plan Estrategikoa osatzen duten ekintzak egituratu eta tokiko garapen jasangarria bideratuko duten helburu nagusiak dira*)




PROGRAMAK (*Lerro estrategikoak aurrera eramateko zehazten diren helburu operatiboak dira. Garatu beharreko kudeaketa eta ekimen arlo nagusietan oinarritzen dira*)



EKINTZAK (*Programak zehaztu eta garatzen dituen neurri, eginkizun eta proiektuak dira. Kudeaketaren oinarritzko unitateak dira, hauen betekizuna ebaluagarria izatea da, horrek Planaren urteko kudeaketa eraginkorragoa izaten lagunduko baitu. Ekintza bakoitza, halaber, jardueraz osatuta egon daiteke; hau da, ekintzak burutzen laguntzen duten proiektuak, ekimenak, etab. izango lirateke.*)

EKINTZA-PLANAREN EKARPENA GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUEI:

Lezo 2030 Plan Estrategikoak Garapen Jasangarrirako Helburuei (aurrerantzean, GJH) zer nolako ekarpena egiten dien aztertu du Udalak. Udalerrian garatu beharreko ekintza bakoitzari dagokion GJH esleitu zaio eta horren arabera GJH bakoitzari Lezok zein ekarpen egingo dion adierazi da, **ekintza kopurutan**, beheko grafikoan azaltzen den moduan.



LERRO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK

Lezo 2030 Plan Estrategikoak **5 helburu estrategiko** definitu jasotzen ditu eta, horiek gauzatzeko, **18 jarduera-programa** adostu dira. Era berean, Lezo 2030 Plana **131 ekintza** osatuta dago. Halako Plan Estrategikoek hainbat motatako ekintzak barneratzen dituzte, lerro estrategiko edo ekintza-programa gisa planteatutako helburu jakin bat lortzeko bidean aurrera egiten laguntzen dutenak. Ekintza horiek maila hauetan sailka daitezke:

HE 1	HIRI-EREDU JASANGARRIA SORTZEA, HERRITARREN ONGIZATEARI BEGIRA, KLIMA-ALDAKETAREN AURREAN EGOKITZEN DENA.
P 1.1	Hirigintza jasangarrian aurrera egitea
E 1.1.1	Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari berrikuspen bat egitea, egungo behar eta egoerara egokitzu, 2030era zehazten diren helburuekin uztartuz eta udalaz gaundiko bestelako plangintzek eta azpiegitura handiek ekarri ditzaketen eraginak aurreikusiz (Porturaino iritsiko den AHT, Gaintxurizketan aurreikusita dagoen estazio intermodala, etab.).
E 1.1.2	Landa-gunean kokaturiko auzo-gune andeatuak hiri eremu bezala izendatu, ondoren hauek urbanizatu eta birgaitze planak abian jartzeko eta gauzatzeko baliabideak jarritz (Gaintxurizketako Errekalde eta Perrene auzoak).
E 1.1.3	Industriaguneak berrurbanizatu, modernizatu zein naturalizatzeko eta landa-eremuarekin dituzten muga eremuak berreskuratzeko jarduerak sustatu, "Lezo, Eko Parke Industrialak 2020-2030" bezalako planei bultzada eman.
E 1.1.4	Industriagune berriak garatu aurretik, daudenak biziberritzeko plangintza garatu.
E 1.1.5	Udalerriko parke, lorategi eta berdeguneen babes zein kudeaketarako neurriak HAPOn barneratzeko bideak finkatu eta berdegune berriak sortzeko aukerak aztertu, herri-guneko zuhaitzak babesteko neurriak barneratu.
E 1.1.6	Herria neurrigabe handitzea ekiditea eta bai nekazaritza bai abeltzantzarako balio altuko esparruen hiritartzeak ekiditeko neurriak hartzea.
E 1.1.7	Nekazaritza ekologikoko parke edo agroaldean sustapena eta kudeaketa egokiak bideratzen jarraitu (ur-puntuaren beharrak ase, etab.), Aldundia eta Behemendirekin batera.
E 1.1.8	Legez kanpo eraikitako baratze eta txabola-eraikinak kentzen joan eta berriak sortzea ekidingo duten neurriak hartu, erabiltzaileak baratze-parkean birkokatzea eskainiz.
P 1.2	Udalerriko natura-balioa, biodibertsitatea eta paisaia babestu eta berreskuratzea.
E 1.2.1	Hirian eta hiri inguruan ekologia eta paisaia aldetik interesgarriak diren elementuak zein babestutako natur elementuak zaintzea eta kasu kasu berreskuratzea, hauen arteko loturak bermatuz (Jaizkibel mendian eta korridore ekologikoan biodibertsitatea kontserbatu eta lehengoratzeko urratsak eman).

E 1.2.2	Hiriguneko zein landa eremuko erreken ingurumen-kalitatea hobetzen jarraitu (isurketak lokalizatu eta konpondu...) eta URA Ur Agentziarekin batera ur-ibilguen lehengoratzeko eta hobetzeko lanak burutzen jarraitu.
E 1.2.3	Herri-baratzeen kudeaketarako eta dinamizaziorako baliabideak jartzea.
E 1.2.4	Herri-lurretan bertako zuhaitz espezieak lehenestea, pinua eta kanpoko beste espezieak ingurua kaltetzen ez duten teknikak erabiliz atera eta baso kudeaketa jasangarriaren eredu bihurtuz.
E 1.2.5	Lur pribatuen erosketa aztertu bertako zuhaitz espezieen hedapena eta konektibitatea bermatzeko.
E 1.2.6	Animalia zein landare espezie inbaditzaileen (liztor beltza, Reynoutria japonica, etab.) kontrolarekin jarraitu, Aldundiarekin elkarlanean.
E 1.2.7	Natura-inguruneari eta "hiri-biodibertsitateari" buruzko ingurumen-heziketa sustatzea, udalerriko natura- eta paisaia-balioak ezagutarazteko (hegaztien habiak ezagutzeko kanpainak, erreken balio naturalen lanketa, etab.).
E 1.2.8	Udalerriko natura-inguruneari eta paisaiari buruzko ikerketa-lanak sustatzea eta emaitzak ezagutaraztea.
E 1.2.9	Natura zaindu eta errespetatzen duen aisialdia, kirola eta turismoa sustatzea ingurune naturalean: natura-ibilbideen indartzea, landa eremuko ondare arkitektonikoa zaintzea eta berreskuratzea, ehizaren eragin kaltegarriak murriztea, motordun ibilgailuen kontrola, etab.
E 1.2.10	Lorezaintzako lanetan bioaniztasun irizpidea barneratzea eta lorezaintza jasangarriaren eredu aplikatzea.
E 1.2.11	Jaizkibelen dauden ehiza postuen jarraipen zorrotzagoa (egoera, segurtasun-neurriak, ...) egin dezan eskatu Aldundiari.
P 1.3	Mugikortasun jasangarriaren garapena bermatzea.
E 1.3.1	Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planaren Ekintza Planaren tramitazioarekin bukatu eta jasotzen diren ekintzak garatzeko baliabideak eskaintzea.
E 1.3.2	Industriaguneek eta portuak eragindako herriguneko errepideen trafikoa murriztu eta mantsotzeko neurriak Aldundiarekin adostea, ibilgailu astunak herriguneko zirkulaziotik ateratzeko helburuarekin.
E 1.3.3	Irisgarritasun jarduerekin jarraitzea (Irisgarritasun-plana -2017- gauzatuz) eta herrigunetik kanpoko eremu andeatuetan irisgarritasuna hobetzeko jarduerak lehenestea (Altzate, Gaintxurizketa, etab.).
E 1.3.4	Bidegorri eta oinezkoen bide eroso eta seguruaren sareak egokitu eta osatu daitezten lan egitea Aldundiaren eskutik, herrigunetik kanpo, oinezko eta bizikleta bidezko loturak ahalbidetuz eta arriskuguneak ekidinez (Pasaia aldera, Gaintxurizketako auzoa, etab.).
E 1.3.5	Herrigunetik kanpo disuasio-aparkalekuak eraikitzeak aukerak aztertzea (Bekoerrota ingurukoa hobetu, Altzateko igerilekukoa aztertu, etab.).
E 1.3.6	Landa eremuko eta herrigunetik kanpoko industria eta landa-auzoetako garraio publikoa bermatu eta hobetzea.

E 1.3.7	Herrigunean abiadura mugatuko eremuak areagotzea eta bidegurutzeetako eremuak oinezkoentzako egokitzea, errepideetan arrisku egoerak ekiditeko.
E 1.3.8	Hiri eremuan dauden zenbait altuera diferentzia ezabatzeko irisgarritasun irizpideak aplikatzen jarraitzea.
P 1.4	Ur-baliabideen erabilera arduratsua eta hondakinen kudeaketa eraginkorra.
E 1.4.1	Udaleko eta udalerriko urteroko ur-kontsumoak modu sistematikoan jasotzen jarraitu, eta horien kontrola bermatu galerak murrizteko helburuarekin.
E 1.4.2	Ur-hornidura sarea hobetu, bai orokorra, bai Jaizkibetik ura hartzen duena, ur-galerak urtero, gutxienez, %1 murrizten joateko.
E 1.4.3	Landa eremuko hormigoizko bideetan ur-kanaletak jartzea euri-urek bidean eragin ditzaketen kalteak gutxitzeko.
E 1.4.4	Udalerriko ur-zikinak modu egokian kudeatzeko beharrezko hobekuntzak burutzen jarraitzea (Altamira auzoa eta Altzateko igerilekukoak, saneamendu sareko garbiketa, ...).
E 1.4.5	Ordenantza fiskaletan ingurumen irizpideak aplikatzeagatiko hobari fiskalak jasotzea, bai saneamenduan bai ur-kontsumoari lotuta.
E 1.4.6	Uraren zikloari eta baliabide honen erabilera arduratsuari buruzko sentsibilizazio eta komunikazio jarduerak burutu.
E 1.4.7	Azken urteetako hondakinen sorreran antzemandako igoera ekiditeko murrizketa eta prebentzio neurriak ezartzea, San Marko Mankomunitatearekin elkarlanean (prebentzio-planaren idazketa, industriari zuzendutako tailerrak, ...).
E 1.4.8	Sanmarko Mankomunitatearekin elkarlanean, gaikako bilketan sakondu eta bestelako hondakin-zatikien gaikako bilketarako aukerak aztertu (bilketa-emaizak modu ulergarrian zabaldu, ezohiko datuak eskuratu, ...)
E 1.4.9	Sakabanatutako hondakin-guneak berreskuratu eta bertan hondakin gehiago isuri ez daitezen ekiditeko neurriak ezarri, batez ere Ipintza poligonoan, Iturri poligonoan, Arraitoki aparkalekuan.
E 1.4.10	Auzokonposta proiektuarekin jarraitzea eta herritar gehiago parte hartzeko ekimenak martxan jarri.
E 1.4.11	Garbigune finko edo ibiltari bat, gutxienez, jartzea, herritarren etxeetako hondakin arriskutsuen gaika bilketa errazteko.
E 1.4.12	Kaleak garbitzeko erabiltzen diren aire-garbitzaileek sortzen duten zarata maila aztertu eta behar izanez gero zarata gutxiago sortzen duten batzuegatik ordezkatu.
E 1.4.13	Jaizkibelen egiten diren kirol-jardueretan (bizikleta-lehiaketak, lasterketak, rallyak, ...) sortzen diren hondakinak murrizteko eta sortutakoak gaika biltzeko neurriak hartzea.
E 1.4.14	Landa-eremuko pneumatiko eta artile-hondakinen kudeaketa egokia eman dadin bermatu, tokian bertan erre ez ditzaten.

P 1.5	Udalerriko ingurumen-kalitatea bermatzea.
E 1.5.1	Eusko Jaurlaritzari Lezoko aire-kalitate indizeak neurtzen dituen estazioan gainerako udalerrietan neurtzen diren kutsatzaileak neurtzeko eskatzea.
E 1.5.2	Aire-kalitateari buruzko datuak modu erraz eta ulerterrazean argitara ematea udaleko webgunean.
E 1.5.3	Portuari exijitzea bere jarduerak Lezoko herritarrengan eta ingurumenarengan sortzen dituen eraginak onartzea eta eragin horiek murrizteko neurriak hartzea (zaratak, aire-kutsadura, etab.).
E 1.5.4	2019ko Lezoko Soinu-Ingurua Hobetzeko 2019-2023 Planaren ezarpena aurrera eramatea (batik bat, ingurune edo bizileku kalteberenak eta iturri kaltegarrien gaineko neurri zuzentzaileak lehenetsiz).
E 1.5.5	Poluituta egon daitezkeen Lezoko lurzoruen 2017ko inbentarioa eskuratzea (IHOBeri eskatuz) eta hauen jarraipena egitea, bertan kokatutako jarduerari legedia aplikatuz.
E 1.5.6	Soinu-kutsadurari buruzko sentsibilizazioa burutzea, herritarrek zaratak zer nolako eraginak dituzten ezagutzeko.
E 1.5.7	Arrisku naturalak zein teknologikoak modu egokian kudeatzeko asmoz, udalerriko larrialdi-plana osatzea.
E 1.5.8	Udalak inbentariatuta dituen herriko jarduera guztien tramitazio-lanekin jarraitzea.
P 1.6	Energia-trantsizioa ahalbidetu eta klima-aldaketa arintzea.
E 1.6.1	Energia-arloa lantzeko Udaleko energia-teknikariaren postua sortzea.
E 1.6.2	Udalerriko eta udaleko energia-kontsumoa, bai guztizkoa bai sektoreka, ezagutzeko protokolo sistematizatu bat ezartzea, urtez urteko jarraipena egiteko baliagarri dena.
E 1.6.3	2030 urterako udal-eraikinen %40ak, gutxienez, A edo B kalifikazio-energetikoa lortzeko eta udaleko energia-kontsumoa %35 murrizteko urratsak ematea.
E 1.6.4	Energia iturri berriztagarrien instalazio gehiago jartzea aztertzea, horietarako kokapen egokiaz bilatuz, bai udal-udal eraikinetan, bai eraikin pribatuetan, azken hauetarako laguntzak eta erraztasunak eskainiz.
E 1.6.5	Ordenantza fiskaletan ibilgailu hibrido, elektriko eta gasez funtzionatzen dutenei zuzendutako hobaria urtez urte handitzea eta energiaren eraginkortasunarekin zein berriztagarrien ezarpenarekin zerikusia duten bestelako pizgarri fiskalak ezartzea (eraikuntzei, etab. zuzenduta).
E 1.6.6	Eskualdeko energia-bulegoarekin koordinatzea energia arloko informazioa Lezoko herritarrei helarazteko (dirulaguntzak, aurrezpen-aholkuak, ...).
E 1.6.7	Zerbitzu publikoa herrian ematen duten erakunde edo enpresei eskatzea, ahal dela, ibilgailu elektrikoak erabiltzea (kale-garbiketarako, ...).
E 1.6.8	Erosketa eta kontratazio prozeduretan energia arloko iraunkortasun-irizpideak txertatzeko protokoloa ezartzea (ibilgailu berriak erosteko, ...).
E 1.6.9	Udal-eraikinetan, modu progresiboan, egokien ikusten den ingurumen-ziurtagiria lortzeko urratsak ematea.

E 1.6.10	BEG isurien kalkulurako beharrezko datuak (energetikoak, ibilgailu-kopurua eta hauen erregai-kontsumoak, etab.) urtero eskuratzeko modua sistematizatzea eta Udalsarea 2030en urteroko adierazleen kalkulurako programan parte hartzea.
E 1.6.11	Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna sinatzea eta Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza-plana osatzea.
E 1.6.12	Ibai-uholdeen arriskua duten hiriguneko eremuak eta bertan dauden jarduera edo erabileren ingurukoen gaineko estrategiak sortzea, batez ere ibai-ibilguen lurzoru-azalerari eta eraikinen adinari dagokienean.
E 1.6.13	Bero-boladekiko sentikorrean diren gizarteko sektoreen (adin txikikoak eta 69 urtetik gorakoak) egokitzapenerako neurriak hartzea.
E 1.6.14	Altamira auzoa herriko gas-sarera konektatzea eta egun aldiro-aldiro betetzen den propano-ontzia ezabatzea.

HE 2	TRANSIZIO SOZIOEKOLOGIKOAN OINARRITUTAKO GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATZEA, INKLUSIBOA, BERRITZAILEA ETA JASANGARRIA, ETA KALITATEZKO ENPLEGU OSOAREN ALDE EGITEA.
P 2.1	Enpresa- eta ekintzailatza-eredu berria sustatzea, udalerrriaren garapen sozioekonomikoari aukera emateko.
E 2.1.1	Ekonomia urdina edo Itsasoari lotutako ekonomia sustatzea Portuarekin dauden gatazkak gaindituz
E 2.1.2	Zilar ekonomian oinarrituriko jarduerak sustatzea.
E 2.1.3	Tokikoa eta zirkularra den ekonomia sustatzea (zer den ezagutaraztea, KM0 bultzatzea, ...).
E 2.1.4	Eskualdeko gainerako udalekin elkarlana bultzatzea, garapen ekonomikoko eta laneko aukerak sortzeko.
P 2.2	Langabeziarik egon ez dadin lan egin, lan-baldintza duinak mantenduz.
E 2.2.1	Langabezia dauden pertsonen artean eta herriko enpresen artean enplegua sortzeko aukera ezberdinak osatu, lagundu eta bultzatzeko neurri berritzaileak sortzea.
E 2.2.2	Gizarte-bazterketa saihesteko, ekintzailatza eta lanerako prestakuntza bultzatzea, etorkizunera begira potentziala duten jarduerari begira.
P 2.3	Herriko merkataritza indarberritu, kaleei giroa emanez.
E 2.3.1	Lehiakortasunetako prestakuntza eskaini.
E 2.3.2	Hutsik dauden lokalak bete eta kaleak biziberritzeko kanpainak burutu.
E 2.3.3	Negozio berriei alokairuan lagundu (alokairuen zati baten ordainketa lehen hilabeteetan, esaterako)
E 2.3.4	Herrian kontsumitzeko kanpainak bideratu.
E 2.3.5	Merkatari eta ostalariei administrazioak eta pandemia egoerak ekarri dituen eskakizun berriei egokitzeko laguntza eskaini (Ticket bai, Pandemia, etab.).
E 2.3.6	Lezoko Merkatarien elkarte berriari bere jardunerako lokala erraztu.
E 2.3.7	Sinergiak sortzea zerbitzu sektoreko alderdi ezberdinekin jarduera turistikoa bultzatzeko ekimenak garatzeko, hazkunde potentziala bezala, bai enpresa mailan, bai enplegu mailan.
E 2.3.8	Altamira Auzo Elkartearen eraikina berritu eta, auzoko denda gabezia kontuan hartuta, eraikinaren zati bat denetariko denda gisa erabiltzeko prestatzea.
P 2.4	Lehen sektorea suspertzea, herritarren osasunarekin, kalitatearekin zein naturaren zaintzarekin uztartuz.
E 2.4.1	Lehen sektoreak landa paisaiaren kontserbaziorako duen garrantzia aintzat hartuta baloreen jartzeko lan egitea.

E 2.4.2	Bertako produktuen komertzializazio bide berriak sortzea (Bertako produktuen azoka, kontsumo taldeen sustapena, ostalarien artean bertako produktuen kontsumoa sustatzeko kanpainak, etab.).
E 2.4.3	Nekazarien dibertsifikazioa bultzatu eta landa eremua balorean jartzeko ekimenak bideratu, lehen sektoreko jardueren bideragarritasuna eta belaunaldi berriek erreleboa hartu dezaten bermatuz.
E 2.4.4	Olaizolako agroaldea abian jarri eta Urrullo zein Gaintxurizketakoarekin batera balioan jartzea, herritarren artean bertako kontsumoa sustatuz.
E 2.4.5	Landa eremuko biztanleen bizi kalitatea bermatzeko lan egin (irisgarritasuna, komunikabideak, osasuna, etab.).

HE 3	HERRITAR GUZTIEN ONGIZATEA BERMATUKO DUEN GIZARTEA ERAIKITZEA.
P 3.1	Herritarrei eskainitako gizarte eta osasun zerbitzuei eta prestazioei buruzko kalitatea hobetzea, horien eraginkortasunean sakonduz.
E 3.1.1	Gizarte arloan abiarazitako programa eta ekimenei jarraipena eman eta horiek sendotzeko baliabideak ezartzea (langileen plantilla egonkortzea), zerbitzu kartera areagotuz eta eskualde mailan dauden programak herrira jaitsiz.
E 3.1.2	Gizarte zerbitzuen lokal berria prestatzea.
E 3.1.3	Biztanleriaren zahartzeari lotutako behar beharrei aurre egiteko udal baliabideen aurreikuspen eta egokitzapen lanak aurrera eramatea (mendekotasunaren hazkuntzari lotuta, etab.).
E 3.1.4	Herritarrek Gizarte Zerbitzuen inguruan informatzeko, horietara bideratzeko eta gizarte arloko laguntzak edo programa zehatzak tramitatzen laguntzeko udal mailako zerbitzuaren etengabeko hobekuntza bultzatu.
E 3.1.5	Familia duten eta mendekotasun egoeran aurkitzen diren pertsonei eskaintzen zaizkien laguntzak mantendu eta hobetu, zaintza zerbitzua eskaintzen duten zaintzaileen lan duintasuna bermatzeko neurriak hartuz.
E 3.1.6	Eguneko zentroak dituen plazak mantendu eta apurka-apurka, areagotzen joan, baita etxebizitza tutelatuena ere.
E 3.1.7	Herritar guztiei oinarritzko osasun baliabide eta zerbitzuak hobetzeko, espezialistak herrira egiten dituzten bisiten maiztasuna areagotzeko Osakidetzarekin koordinatzea.
E 3.1.8	Biztanleen artean bizitza ohitura osasuntsuak irakastea eta bultzatzea helburu duten ekimenak mantendu eta sustatzea.
P 3.2	Herri integratzaile eta inklusiboa garatzea.
E 3.2.1	Atzerriarrentzako laguntza-sare bat sortzea aztertu (adibidez, hasierako laguntza guraso-talde baten bitartez eskainiz: bertako hezkuntza-eredua azaltzeko, udalerriko gune eta instalazioak aurkezteko, ohiturak partekatzeko, etab.)
E 3.2.2	Gazte eta haurrei zuzenduriko zerbitzu eta programa berriak abian jartzeko baliabideak jartzea, arlo komunitarioan lantzeko.
P 3.3	Emakume eta gizonen berdintasunerako eta genero indarkeriaren aurkako lanketa.
E 3.3.1	"Lezoko emakume eta gizonen Berdintasunerako II. plana" garatu ahal izateko beharrezko baliabideak ezartzea Berdintasun sailean, batez ere baliabide pertsonalen aldetik.
E 3.3.2	Emakume eta Gizonen Berdintasunerako irizpideak barneratu Udaleko ekimen eta proiektu ezberdinetan eta parekidetasunera bidean ekintzak burutzen joatea.
E 3.3.3	Osakidetzarekin koordinazioa eta elkarlana egonkortu eta areagotzea genero indarkeria kasuen kudeaketa egoki bat bermatzeko.

E 3.3.4	Herriko puntu arriskutsuen inbentarioa eguneratzea eta hauek ezabatzeko neurriak hartzea.
P 3.4	Udal-etxebizitza politika jasangarria eta inklusiboa abiarazteko ekimenen garapena
E 3.4.1	Udalerriko etxebizitza beharraren azterketa egitea.
E 3.4.2	Herrigune Historikoa Eraberritzeko Plan berezian zehazten diren eraberritze-irizpideak aintzat hartuta etxebizitza zaharrak berritzeko sustapen-jarduerak baloratu eta martxan jarri, Oarsoaldeko Birgaitzeko Hirigintza-sozietatearekin elkarlanean.
E 3.4.3	Etxebizitzak egungo beharretara egokitzeko aukerak aztertu eta laguntzak bideratu (irisgarritasuna, energia eraginkortasuna eta isolamendua, ...).
E 3.4.4	Alokairu soziala bultzatu, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.

HE 4	KULTURA-, KIROLA- ETA HEZKUNTZA- SORKUNTZA ZEIN ESKAINTZA ZABALA SUSTATZEA, ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANEAN OINARRITUZ.
P 4.1	Euskararen erabilera indartzea eta suspertzea herriko gunee eta eremu ezberdinetan.
E 4.1.1	Euskararen kale-erabilera handitzeko aukerak aztertu eta ekimenak burutzea, egungo %32'6tik, gutxienez %60ra iristeko.
E 4.1.2	Aisia euskaraz bermatzeko asmoz, gazteekin aisian lan egiten dutenen kontzientziazioa, trebakuntza, ... bultzatzea (musika-irakasleen artean, kirol-entrenatzaileen artean, etab.).
E 4.1.3	Oarsoaldea b.a.rekin eta eskualdeko udalekin batera burutzen diren ekimenekin jarraitzea eta horiek indartzea (Oarsoarrak, Merkataritza Euskalduntzeko Plana, ...)
E 4.1.4	Lezoko VI. Euskararen Plan Estrategikoan (2018-2022) jasotako jarduerak amaitu, ebaluatu eta hurrengo plana diseinatzeko urratsak ematea.
E 4.1.5	Euskararen herri-batzordearen koordinazio-lanarekin jarraitu, herriko euskararen plangintza osatzeko eta hizkuntza irizpideak denontzako aplikagarriak direla bermatzeko.
E 4.1.6	Kanpotik edo atzeritik Lezora bizitzera etortzen diren pertsonen euskara ikasteko erraztasunak ematen jarraitu.
P 4.2	Kultura, hezkuntza, kirola eta aisiarako azpiegitura, egitasmo zein baliabideak hobetu eta sendotzea.
E 4.2.1	Kulturari lotutako ekipamendu nagusi eta balioanitzak eraikitzeak aukerak aztertzea, kultura-arloko beharrei erantzun egokia emateko, kultura-eragileen elkarlana bultzatzeko eta bizitza kulturala indartzeko.
E 4.2.2	Kultura- zein kirol-elkarteetako kideen erreleboa nola bermatu aztertu, elkarten sarea sendotzeko.
E 4.2.3	Kultura- eta kirol-ekipamenduetako erabiltzaile-kopurua eta azpiegitura horien zein bertan ematen den eskaintzaren gogobete-maila ezagutzeko neurriak ezartzea.
E 4.2.4	Jaurkitzearen eskumena diren hezkuntza-erakundeetan beharrezko berrikuntzak egitea (Haurreskola, Institutua, ...).
E 4.2.5	Institutura iristeko modu jasagarriak aztertzea, bertako erabiltzaileekin batera.
E 4.2.6	Hezkuntza-mahaia sortzea edo udal barnean hezkuntzaren gaia landuko duen egitura sortzea.
E 4.2.7	Ikastetxeetako matrikulazio-datuak eskuratzeko protokoloa ezartzea, bai kopuruari dagokionez, bai generoari dagokionez.
E 4.2.8	Egungo eskola-kirolaren egituraketa mantendu, berdintasunaren, elkartegintzaren eta euskararen baloreak sendotzen jarraitzea.
E 4.2.9	Kirol eta Ongizate sailetatik ekonomia gabezia handien dituzten familiei kirol eskaintzak erraztea, euskararen eta inklusioaren tresna gisa.
E 4.2.10	Tipi Topa ekimenarekin jarraitzea, ahal dela, partaide gehiagorengana iritsiz.

E 4.2.11

Altamira auzoan adineko pertsonentzako osasun-parke bat kokatzea.

HE 5	UDALAREN GOBERNANTZA BERRIAREN ETA EREDUGARRITASUNAREN BIDEZ, LEZO HERRI IRAUNKORRA BIHURTzea.
P 5.1	Udal-langileak ahaldundu iraunkortasun irizpideak egunerokotasunean eta administrazio prozeduretan txertatu ditzaten.
E 5.1.1	Udal-langileei zuzendutako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari buruzko prestakuntza-jarduerak burutzea, ondoren udal-kudeaketan txertatzeko.
E 5.1.2	Erosketetan iraunkortasun irizpideak modu sistematikoan barneratzeko prozedura ezartzea, produktu ezberdinen hornitzaile edo fabrikatzaileei beraien aurrekontu edo proposamenetan barneratu beharreko irizpideak finkatuz (bulegoko materiala, udal-ibilgailuak, udaleko zenbait langileren lan-jantziak, udal-argitalpenak, etab.).
E 5.1.3	Kanpoko zerbitzuak kontratatzean iraunkortasun irizpideak txertatzeko pausoak ematea (pleguetan ingurumen irizpideak barneratuz, esate baterako) Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarritako gutxienezko baldintzak baina haratago joan ote daitekeen aztertuz.
E 5.1.4	Udal-jardueren ingurumen eragina murriztea (Udalak antolatzen dituen festak, azokak, ekitaldiak, etab. edo Udalak babesten edo baimentzen dituenak), IHOBE Sozietate Publikoaren "Erronka Garbia" egitasmoaren helburuekin bat eginez.
E 5.1.5	Udal-instalazioen eta zerbitzuen baliabideen kontsumoa eta isurpen-indizeak kontrolatzea.
E 5.1.6	Udaleko langileak eta ordezkari politikoak baliabide ezberdinak (bulegoko materiala, energia, ura, ...) arduraz erabiltzea eta hondakinak modu egokian kudeatzera bultzatzea.
E 5.1.7	Udala kide den eskualde mailako erakunde edo sozietateetan ere Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen irizpideekin bat datozen jardunbideak bultzatzea (Oarsoaldea ba, Sanmarko Mankomunitatea, Añarbeko Urak, etab.).
P 5.2	Herritarren eta udalaren arteko komunikazio eta harremanak hobetzea.
E 5.2.1	Herriko partaidetza arautuko duen udal-ordenantza osatzeko aukera aztertzea.
E 5.2.2	Udaleko webgunean Tokiko 2030 Agendari buruzko atala sortzea eta urtez urte elikatzea.
E 5.2.3	Eskolako 2030 Agenda hezkuntza-programan ikastetxe ezberdinek parte hartzen jarraitzeko neurriak aztertu, Udalaren, Ingurugelaren eta ikastetxeekin koordinazioan.
E 5.2.4	Herritarren parte-hartzea bermatzeko guneak abian jartzea, aurrez aurrekoak ez direnekin oreka bilatuz (whatsapp-a, bideodei-plataformak, ...).
E 5.2.5	Lezoko 2030 Agenda Plan Estrategikoaren jarraipena egiteko eta, urtez urte, herritarrek ekarpenak egiteko aukera izan dezaten, Lezo herrigile parte-hartze organoa sortzea eta berau egonkorra izateko pausoetan sakontzea.
E 5.2.6	Ingurumen gaietan herritarrei zuzendutako komunikazioa eta prestakuntza handitzea.
E 5.2.7	Udaletxean burutu beharreko tramiteentzako izapideentzako arreta-ordutegia zabaltzea.